



Azaroak 25,
Emakumeen kontrako Indarkeria
Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna.

25 de noviembre,
Día Internacional de la Eliminación
de la Violencia contra las Mujeres.



AZAROAREN 25a, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

EAJ-PNVren EUZKADI BURU BATZARAREN ADIERAZPENA

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izendatu duten azaroaren 25a dela eta, EAJ-PNV osatzen dugunok emakumeen aurkako indarkeriaren edozein adierazpen (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...) eta sexismo-mota guztiak (baita sotilenak eta normalizatuenak ere, hala nola sexuek estereotipatutako rolak esleitzea edo beste eremu batzuetako bizitza ikusezin bihurtzea) irmo gaitzesten ditugu. Halaber, gure gizartearen arazo estruktural baten aurrean gaudela, hots, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna oinarri hartuta berdintasun-politikak bultzatu eta garatzea eskatzen duena berresten dugu, nazioarteko erakundeek eta emakumeen eta gizonen eskubideen berdintasunaren arloan adituak diren pertsonen gomendatzen eta sinatzen duten bezala.

Indarkeria sexista, emakume izate hutsagatik gizonen emakumeengan erabiltzen duten indarkeria mota, oso errotuta dago gure gizartean. Eta emakumeen eta gizonen artean historikoki desberdinak izan diren botere-harremanen ondorioz gure gizartean dagoen desberdintasunaren adierazpen basatieta da. Emakumeen eta gizonen arteko harremanen esparruan onartutako desberdintasunen normalizazioaz elikatzen da, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen baitizkie emakumeei eta gizonei, eta, ondorioz, mugatzailea da jaino diren sexuaren arabera pertsonen bizi-proiektuak hedatzeko. Gizartea eraldatzeko bidean, pertsona guztiak nahi duten bezalakoa izateko askatasuna izango duten Euskadi bat eraikitzen ahalegindu behar dugu, beren ahalmen guztia garatzeko eta berdintasunezko eta errespetuzko tratua jasotzeko aukerarekin.

Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea, indarkeria onartzen edo justifikatzen duten jarrera sozialei heldu gabe ezin da lortu. Beraz, beharrezkoa da indarkeria horren gizarte-onargarratasuna salatzea eta ekintza sistemikoko politikak sustatzea, hala nola prebentzioa eta sentsibilizazioa, baita hainbat eremutako programak ere: hezkuntza, enpresa, kirola, kultura, etabar.

Pertsona guztientzako tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizi nahi dugu, urrats bat gehiago emango duen gizarte batean, eta emakumeenganako indarkeria ez onartzeaz gain, emakumeen eta gizonen eskubideen berdintasunaren alde argi eta garbi agertuko den gizarte batean. Pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarritzen diren gizarte baten alde egiten dugu. Errespetatzeak ez du bakarrik esan nahi erasorik ez egin behar denik: horrek esan nahi du, halaber, pertsona bakoitzak bere bizi-ibilbidea marraztu dezakeela, desberdintasunak dakarren mugarik gabe.

Gure konpromisoa, EAJ-PNV garen eta osatzen dugun aldetik, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea ahalbidetuko duten politikak bultzatzen jarraitzea da, berdintasunaren eta errespetuaren balioetan oinarritutako hezkuntza sustatuz bizitzako estamentu eta etapa guztietan. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko euskal gizartea lortzeko lanean jarraitzea. Horretarako, dugu eta izango dugu Euskadiko Berdintasun Plan berriaren abian jartzea, zeinek indarkeria matxistaren biktimezako arreta-zerbitzuak indartuko dituen, horien mendeko haurrak barne; horretarako, emakumeen kolektiboekin eta mugimendu feministarekin lankidetzan jardungo da.

Indarkeriaren biktimei laguntzeko eta arreta emateko baliabideen sare irisgarria gogorazi nahi dugu, besteak beste, **900 840 111** telefono bidezko arreta-zerbitzuaren bidez.

Era berean, dei egiten diegu herritarrei azaroaren 25 honetan bat egin dezaten beren auzoetan, udalerrietan edo hirietan emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela-eta deitutako mobilizazioekin.